

MONDRAGONeko Kontseilu Orokorraren aho bateko akordioa Fagor Etxetresna Elektrikoei buruz

Bere iritziz, proiektuak ez die merkatuaren beharrei erantzuten, eta eskatzen diren baliabide finantzarioek ez lukete enpresaren etorkizuna bermatzeko balioko.

Korporazioak 300 milioi euro bideratu ditu Fagor Etxetresnetara kooperatiben arteko elkartasun babesaren kontzeptuan.

Fagor Etxetresnen egoerak ez die Korporazioko gainerako kooperatibei eragiten, ez delako enpresa holding bat, erakunde independente eta autonomoen elkarte bat baizik.

Korporazioak beharrezko elkartasun mekanismo guztiak abiaraziko ditu enpleguan sortutako eragina ahalik eta gehien murrizteko.

Epe laburrera lan proposamen bat osatuko du, ohiko bideetatik zein bide berezietatik negozio berrien sustapenari lotutako eragile korporatibo guztiak aktibatzeke.

Korporazioaren Kontseilu Orokorrek ez du bideragarri ikusten Fagor Etxetresna Elektrikoei aurkeztutako proposamena eta, aho batez, bere iritzia da proiektua ez dela behar bezala egokitzen merkatuak dituen beharretara, eta eskatzen dituen baliabide finantzarioek ez luketela enpresaren etorkizuna bermatuko.

Korporazioak bere kooperatibek beraiek eta bere finantza tresna korporatiboen bitartez Fagor Etxetresnei azken urteotan laguntzak bideratu eta gero gertatu den egoera aztertu du, eta aho batez ondorioztatu du Fagor Etxetresna Elektrikoen bideragarritasun plana ez dela bideragarria.

Merkatua. Funtsezko alderdi bat dago, Fagor Etxetresnek merkatu globalean lehiatzeko duen ahalmenarekin zerkusua duena, lehiakide berriak eta joko arau berriak dituen sektore batean gertatzen ari diren aldaketa guztietara egokitzeari dagokionez. Eta hori berdin gertatzen da enpresa ororentzat, daukan izaera juridikoa edozein dela ere.

Korporazioa. Elkarrekiko independenteak diren kooperatiba autonomoen elkarte bat da hainbat elkartasun mekanismoz hornituta. Korporazioak bere kooperatiba guztien interesak defenditzen ditu, baina negozioen kudeaketaren erantzukizuna, ordea, horietako bakoitzaren gain dago.

Horrenbestez, Fagor Etxetresnen egoerak ez die Korporazioko gainerako kooperatibei eragiten, ez delako enpresa holding bat, **erakunde independente eta autonomoen elkarte** bat baizik.

Babes solidarioa. Azken urteetan, Korporazioak 300 milioi euro bideratu ditu Fagor Etxetresnetara

kooperatiben arteko elkartasun babesaren kontzeptuan, tresna korporatiboen bitartez, gainerako kooperatiben laguntzen bitartez eta, azkenik, Fagor Taldean bertan kokatutako kooperatiben babes solidario hurbilagoaren bitartez.

Kontseilu Orokorraren konpromisoak

Halaber, MONDRAGONeko Kontseilu Orokorra, egoera honek Fagor Etxetresna Elektriokoetako bazkideengan eta ingurunean duen eragin sozialaz jabeturik, zera adierazten du:

- .. Korporazioak beharrezko **elkartasun mekanismo** guztiak abiaraziko ditu Fagor Etxetresnen egoeragatik enpleguan sortutako eragina ahalik eta gehien murrizteko. Horretarako, birkokapenak zein aurretiko erretiroak erabiliz, eta prestakuntza programak abiaraziz Fagor Etxetresnetako bazkideen enplegarritasuna errazteko. Ekintza horiek guztiak Enplegu Bulego Korporatibotik koordinatuko dira –dagoeneko koordinatzen ari dira–, eta bertan parte hartzen dute Fagor Etxetresnetako Pertsonal sailak, Lagun-aro, EPSVk eta Korporazioko Gestio Sozialeko sailak.
- .. **Iraganak abalatzen du Korporazioak enplegua sortzeari dagokionez egindako bidea**, eta bertan integratutako dibisio guztiek gaur egun ere ildo horretan jarraitzen dute. Gure kooperatibak askotariko sektore eta merkatuetan daude presente, eta hori bermea da epe ertain edo luzerako etorkizunean jarduera berriak sortzen eta, ondorioz, enplegua sortzen jarraituko dutela pentsatzeko. Gure negozioak beren merkatuetan lehiakorrek izatea berez albiste ona da Fagor Etxetresnetan soberan geratu den enpleguari irtenbidea emateko.
- .. **Jarduera sustatzailea areagotuko du.** Kontseilu Orokorra dagoeneko epe laburrera lan proposamen bat osatzeko konpromisoa dauka, ohiko bideetatik zein bide berezietatik, negozio berrien sustapenari lotutako eragile korporatibo guztiak aktibatzeke.
- .. Konpromisoa hartzen du hurrengo Kongresuan jarduera horiek guztiak finantzatu ahal izateko ekimenak aurkezteko.
- .. Datozen hilabeteetan Fagor Etxetresnei lankidetzak eskainiko dio iraun dezaketen negozio unitateetan ahalik eta enplegu kopururik handiena babesten saiatzeko.

Eredu kooperatiboa

Halaber, MONDRAGON Korporazioak eredu kooperatiboaren aldeko apustua berresten du. Merkatu globalizatuaren testuinguruan, kooperatibismoaren berezko balioak (pertsonek protagonismoa, lanaren lehentasuna kapitalaren aurretik, kudeaketan parte hartzea eta kooperatiben arteko elkartasuna) etorkizuneko enpresak kudeatzeko giltzarriak dira gaur inoiz baino gehiago, egoera ekonomikoa aurkakoa izan arren eta egoera horrek edonolako enpresa erakundeentzat arazoak dakartzen arren. Horrenbestez, MONDRAGONek berretsi egiten ditu eredu kooperatiboa zein bere enpresa gehien-gehien lehiakortasuna, arrakastaz beteriko ibilbide enpresarialean eta euskal, espainiar zein nazioarteko ekonomiaren hainbat sektoretan frogatu duen eraginkortasunean oinarrituta.

Bere historiako ia 60 urteetan zehar egin ohi duen bezala, MONDRAGONi atxikitako kooperatibek asmatuko dute egoera zail hau gainditzen, enpresetan merkatuetara egokitzeko erabakiak hartuz eta elkartasunerako dituzten mekanismo eta tresna guzti-guztiak erabiliz.

Horrez gain, MONDRAGONek herrialdearen aldeko konpromisoaren mezua helarazi nahi dio gizarteari, sendotasun eta batasun mezua, eta enpresa sarea eraldatzeko apustuaren mezua, balio erantsi handiagoko

MONDRAGON



enpleguak sortzeko, egungo jokaleku globalak eskatzen duenarekin bat eginda. Azkenik, sosegu mezua ere helarazi nahi du, erabaki honen eraginak ebaluatu eta gero eta kudeaketarako dugun kaudimenaz eta gaitasunaz jakitun.

www.mondragon-corporation.com

Arrasate, 2013ko urriaren 30a

Acuerdo unánime del Consejo General de MONDRAGON sobre el proyecto Fagor Electrodomésticos

Considera que el proyecto no responde a las necesidades del mercado y que los recursos financieros que demanda no servirían para garantizar su futuro empresarial.

La Corporación ha destinado a Fagor Electrodomésticos en concepto de apoyo solidario intercooperativo un total de 300 millones de euros.

La situación de Fagor Electrodomésticos no afecta a las demás cooperativas de la Corporación ya que no se trata de un holding empresarial, sino de asociación de entidades independientes y autónomas.

La Corporación pondrá en marcha todos los mecanismos de solidaridad necesarios para reducir al máximo el impacto en el empleo.

A corto plazo elaborará una propuesta de trabajo para activar a través de vías ordinarias y extraordinarias todos los agentes corporativos ligados a la promoción de nuevos negocios.

El Consejo General de la Corporación no ve viable la propuesta presentada por Fagor Electrodomésticos y considera de forma unánime que el proyecto no responde a las necesidades del mercado y que los recursos financieros que demanda no servirían para garantizar su futuro empresarial.

La Corporación analiza esta situación después de las ayudas otorgadas a Fagor Electrodomésticos en los últimos años por las cooperativas y a través de los diversos instrumentos financieros corporativos, y ha considerado unánimemente que el plan de viabilidad de Fagor Electrodomésticos no es factible.

El mercado. Hay una cuestión fundamental que tiene ver con la capacidad de Fagor Electrodomésticos de competir en el mercado global y adaptarse a todos los cambios que se están produciendo en el sector con nuevos competidores y nuevas reglas de juego. Y esto es común a cualquier empresa, independientemente de su naturaleza jurídica.

La Corporación. Es una asociación de cooperativas autónomas e independientes entre sí que se dotan de una serie de mecanismos de solidaridad compartidos. La Corporación defiende los intereses de todas sus cooperativas mientras que la responsabilidad de gestión de los negocios recae enteramente en cada una de ellas.

Por tanto, la situación de Fagor Electrodomésticos no afecta a las demás cooperativas de la Corporación ya que no se trata de un holding empresarial, sino de **asociación de entidades independientes y autónomas.**

Apoyo solidario. En los últimos años, la corporación ha destinado a Fagor Electrodomésticos en concepto de apoyo solidario intercooperativo un total de 300 millones de euros por parte de los instrumentos corporativos, los apoyos del resto de cooperativas y finalmente el apoyo solidario más cercano de las cooperativas encuadradas en el grupo Fagor.

Compromisos del Consejo General

Asimismo, el Consejo General de MONDRAGON, consciente del impacto de esta situación para los socios de Fagor Electrodomésticos y en el entorno, señala:

- .. Que continuará habilitando todos **los mecanismos de solidaridad** necesarios para reducir al máximo el impacto en el empleo por la situación de Fagor Electrodomésticos. Desde recolocaciones, pasando por prejubilaciones y poniendo en marcha programas de formación que faciliten la empleabilidad de los socios de Fagor Electrodomésticos. Todas estas acciones se coordinarán, ya se está haciendo, desde la Oficina Corporativa de Empleo, en la que participan el departamento de personal de Fagor Electrodomésticos, Lagun-Aro, EPSV, y el departamento de Gestión Social de la Corporación.
- .. Que el **pasado avala la trayectoria generadora de empleo de la Corporación** y todas las divisiones integradas en ella actualmente continúan en esta línea. La diversidad de sectores y mercados en los que nuestras cooperativas tienen presencia es una garantía que nos hace pensar que en el futuro a corto medio plazo seguirán generando nuevas actividades y consiguientemente nuevas oportunidades de empleo. El hecho de que nuestros negocios sean competitivos en sus respectivos mercados es una buena noticia para dar una solución al empleo excedentario de Fagor Electrodomésticos.
- .. **Que intensificará la actividad promotora.** Ya existe el compromiso asumido por el Consejo General de elaborar a corto plazo una propuesta de trabajo para activar a través de vías ordinarias y extraordinarias todos los agentes corporativos ligados a la promoción de nuevos negocios.
- .. Que adquiere el compromiso de presentar en el próximo Congreso las iniciativas que permitan financiar todas esas actividades.
- .. Que ofrecerá colaboración a Fagor Electrodomésticos en los próximos meses para intentar salvaguardar el máximo número de empleos en las unidades de negocio sostenibles.

Modelo cooperativo

Asimismo, la Corporación MONDRAGON se ratifica en su apuesta por el modelo cooperativo. En un contexto de mercado globalizado, los valores propios del cooperativismo (protagonismo de las personas, prevalencia del trabajo sobre el capital, participación en la gestión y solidaridad intercooperativa) son hoy más que nunca claves de gestión de las empresas del futuro, a pesar de que la coyuntura económica es adversa y pone en dificultades a todo tipo de organizaciones empresariales. Por tanto, MONDRAGON se ratifica en el modelo cooperativo y en la competitividad de la mayor parte de sus empresas, con una trayectoria empresarial de éxito y probada eficiencia en diversos sectores de la economía vasca, española e internacional.

Al igual que se ha hecho a lo largo de sus casi 60 años de historia las cooperativas asociadas a MONDRAGON sabrán sobreponerse a esta difícil situación a través de decisiones empresariales de adaptación a los mercados y mediante la utilización de todos sus mecanismos e instrumentos de solidaridad.

Asimismo, MONDRAGON quiere trasladar a la sociedad un mensaje de compromiso con el país, de fortaleza y unión, y de apuesta por la transformación del tejido empresarial para crear empleos de mayor valor añadido,

MONDRAGON



HUMANITY
AT WORK

Finanzas
Industria
Distribución
Conocimiento

como demanda el actual escenario global. Por último, traslada también un mensaje de serenidad, después de haber evaluado los impactos de esta decisión y conociendo la solvencia y nuestra capacidad de gestión.

www.mondragon-corporation.com

Arrasate, 30 de octubre de 2013